Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko azaroaren 16a, asteartea — 219 — Martes, a 16 de noviembre de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren deialdiaren estraktua. BDNS (Identif.): 594682.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/594682).

*Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren deialdiaren estraktua.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/594682) eta Tolosako Udalaren web orrian.

Deialdi hau honako oinarri juridiko hauetan oinarrituta egiten da:

— Tolosako Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udal honen Osoko Bilkurak 2017ko apirilaren 25ean onartua eta 2017ko uztailaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua (130. zk.).

— Tolosako Hiri-Ekonomia indarberritzeko dirulaguntzen programaren ordenantza espezifikoa, Udal honen Osoko Bilkurak 2021eko urriaren 28an behin betikoz onartua eta 2021eko azaroaren 5ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua (212. zk.).

*Helburua eta xedea.*

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak emateko arauak ezartzea hiri-ekonomiaren esparruko jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzeko, tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz, enpresa-ekimen berriak abiarazteko eta kale espazio hutsak dinamizatzeko.

Oinarri hauetarako hiri-ekonomiaren esparruan sartuko dira merkataritza, hiriko merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak, ostalaritza edo turismo sektoreko jarduerak.

Dirulaguntzak jarraian jaso eta eranskin gisa identifikatzen diren berariazko oinarrietan zehaztutakoaren arabera banatuko dira.

I. eranskina: Negozioen arteko eskualdaketa sustatzeko ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak - Berriz Tolosa.

II. eranskina: Tolosan enpresaritza ekimen bat abiarazteko ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak - Ekin.

*Kreditu erabilgarria.*

Deialdi honetarako Tolosako Udalak hirurogeita hamabost mila zortziehun (75.800,00) euro bideratuko ditu: Berriz Tolosa programarako 10.800,00 €, Ekin programan alokairurako 45.000,00 € eta Ekin programan birgaitze lanetarako

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Extracto de la convocatoria de subvenciones para la reactivación de la economía urbana de Tolosa. BDNS (Identif.): 594682.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/594682).

*Extracto de la convocatoria de subvenciones para la reactivación de la economía urbana de Tolosa.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/594682) y en el portal de internet del Ayuntamiento de Tolosa.

Esta convocatoria se realiza al en base a los siguientes fundamentos jurídicos:

— Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa, aprobada por el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión celebrada el 25 de abril de 2017 y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 7 de julio de 2017 (n.º 130).

— Ordenanza Específica del programa de subvenciones para la reactivación de la Economía Urbana de Tolosa, aprobada por el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión celebrabada el 28 de octubre de 2021 y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 5 de noviembre de 2021 (n.º 212).

*Objeto y finalidad.*

Es objeto de la presente convocatoria establecer las normas para la concesión de subvenciones destinadas al mantenimiento de la actividad económica, el empleo y la competitividad en el ámbito de la economía urbana, mediante la promoción y revitalización de la actividad local, para la puesta en marcha de nuevas iniciativas empresariales y la dinamización de espacios vacíos callejeros.

Para estas bases se incluirán en el ámbito de la economía urbana el comercio, los servicios vinculados a la actividad comercial urbana, las actividades del sector hostelero o turístico.

Las subvenciones se distribuirán de acuerdo con lo establecido en las bases específicas que se recogen a continuación y que se identifican como anexos.

Anexo I: Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para el fomento del traspaso entre negocios - Berriz Tolosa.

Anexo II: Bases reguladoras de las subvenciones para la puesta en marcha de una iniciativa empresarial en Tolosa - Ekin.

*Crédito disponible.*

El Ayuntamiento de Tolosa destinará a esta convocatoria setenta y cinco mil ochocientos (75.800,00) euros con cargo a las partidas presupuestarias 1100.481.01.43100 (2021), 1100.471.01.430.00 (2021) y 1100.771.01.430.00 (2021); en con-

20.000,00 €, 1100.481.01.43100 (2021), 1100.471.01.430.00 (2021) eta 1100.771.01.430.00 (2021) aurrekontupartiden kargura, hurren hurren.

*Onuradunak.*

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

*Onuradunak bete beharreko baldintzak.*

Egunean izatea Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta Tolosako Udalarekiko zerga-betebeharrak.

Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik ez izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne.

Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluaren 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako gainerako egoeretan, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Dirulaguntza lerro bakoitza eskatzeko baldintza zehatzak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek ezarritakoak izango dira.

*Eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epea.*

Interesdunak eskabide bakarra egin beharko du, dirulaguntza lerro ezberdinetarako eskaera egin arren.

Pertsona fisikoek honela aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

Aurrez aurre, Udaten.

Erregistro elektronikoaren bidez.

Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezarritako moduan.

Indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein lekutan.

Erakunde edo pertsona juridikoen kasuan, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dira nahitaez, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoetan ere.

Eskaerak aurkezteko epea izango da 20 egun naturaleko epea, oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Tolosa, 2021eko azaroaren 10a.—Nerea Letamendia Belloso, Turismoa, Merkataritza eta Azoketako zinegotzia. (7329)

creto, 10.800,00 € para el programa Berriz Tolosa, 45.000,00 € para el gasto del alquiler del programa Ekin y 20.000,00 € para los gastos de rehabilitación, respectivamente.

*Personas beneficiarias.*

Podrán ser personas beneficiarias de estas ayudas las personas físicas, las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas y las personas jurídicas, cualquiera que sea su naturaleza jurídica, que cumplan los requisitos establecidos en las bases.

*Requisitos de las personas beneficiarias.*

Hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con la Seguridad Social, Hacienda y Ayuntamiento de Tolosa.

No encontrarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni hallarse incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o de la Ley Orgánica 3/2007, de 30 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

No encontrarse en los demás supuestos previstos en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en relación con los requisitos para ser beneficiario de las subvenciones.

Las condiciones específicas para solicitar cada línea subvencional serán las establecidas en las bases específicas de los anexos que se acompañan a las presentes bases generales.

*Forma, lugar y plazo de presentación de solicitudes.*

La persona interesada deberá realizar una única solicitud, aunque se solicite para las diferentes líneas de subvención.

Las personas físicas podrán presentar sus solicitudes:

Presencialmente en Udate.

A través del registro electrónico.

En las oficinas de Correos, en la forma que reglamentariamente se determine.

En cualquier otro lugar que establezcan las disposiciones vigentes.

En el caso de entidades o personas jurídicas, deberán presentarse obligatoriamente en el registro electrónico del Ayuntamiento de Tolosa, así como en el resto de registros electrónicos a que se refiere el artículo 2.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

El plazo de presentación de solicitudes será de 20 días naturales a contar desde el día siguiente al de la publicación de las bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Tolosa, a 10 de noviembre de 2021.—La concejala de Turismo, Comercio y Ferias, Nerea Letamendia Belloso. (7329)

EK\CV GAO-I-2021-07329